

3 Ipuina nahastuta dago. Azken atala bakarrik dago bere tokian. Jar ezazu ordenan.

Beldurrik gabeko jauna

A Erregeak, gazteluko kideen aurrean, galdetu zion:
 – Mendi hartan zenbat harea-saski daude?
 – Bada, errege jauna, han saski bakarra dago –adierazi zion jauntxoak.
 – Nola? –erantzun zion erregeak.
 – Zuk eskatu harea hori guztia sartzeko adinako saski bat egiteko, eta orduan jakingo duzu egia esaten ari naizela –azaldu zion jauntxoak.
 Han zeuden guztiek txalo egin zioten, eta asebeteta geratu zen.
 – Esadazu, zenbat izar daude zeruan? –galdetu zion erregeak.
 Jauntxoak zenbait buelta eman ostean, erantzun zion:
 – Zeruan milioika izar daude.
 Erregeak erantzuna zehatz ez zekienez, konforme geratu zen.


B Erregeak, hori jakin zuenean, harriturik geratu zen, eta egia ote zen jakin nahi zuen. Gaztelura gonbidatu zuen jauntxoa, eta erregeak hau esan zion:
 – Hiru egun barru, heriotz-zigorpean, hiru galdera erantzungo dizkidazu. Beraz, hona etorriko zara!
 Jauntxoa oso triste eta beldurtuta itzuli zen bere etxera. Ez zuen jateko gogorik ere. Bere zerbitzaria kezkatzen hasi zen eta galdetu zion:
 – Zergatik zaude hain triste?

C Bazen behin, inoiz beldurrik izan ez zuen jauntxo bat. Ezerk ez zuen kezkatzen, eta bere etxeko atean o:
 Beldurrik gabeko jauna bizi da hemen.

D –Ai, zerbitzari fidela, beldurrez beteta nago. Erregeak hiru galdera egingo dizkit, heriotz-zigorpean, eta ez badakit zer erantzun...
 Zerbitzariak bere asaldura ikusita, gaineratu zion:
 – Ez beldurtu! Ongi baderitzozu, ni joango naiz zure lekuan hiru galderak erantzutera. Jauntxoak ez zuen onartu nahi, baina zerbitzaria tematuta zegoenez, bere jantziak eman zizkion.
 Eguna iritsi zenean, jauntxoa balitz bezala, jantzi, bizarra moztu, eta erregearengana joan zen.

E Eta hirugarren galdera egin zion erregeak:
 – Esango al didazu zertan ari naizen pentsatzen?
 – Bai, errege jauna, zu pentsatzen ari zara beldurrik ez duen jauntxo batekin hizketan ari zarela, baina bere zerbitzariarekin ari zara hizketan.

Ipuin mexikarra



Beldurrik gabeko jauna

